

JANGELAKO FUNTZIONAMENDURAKO ARAUTEGIA:

1.1. SARRERA:

Jangela ikastolaren **zerbitzu bat** da eta ondorioz, **hezkuntzarako gune bat** gehiago. Jangela zerbitzuaren inguruan definitutako helburuak eta bete beharreko arautegia ikastolaren hezkuntza proiektuaren helburuen eta zerbitzu egoki baten lorpenera begira definitu dira.

Ikastolan dauden denboran, ikastolako zerbitzuak erabiltzen direnean edo ikastolari lotutako edozein ekintza burutzen denean, denon onerako, bizikidetza oinarritzko araudi bat bete behar dugu denok eta araudi honen oinarria **errespetua** da. Errespetua norberari, errespetua ikasleari, errespetua ikaskideei, errespetua irakasle, hezitzaile eta gurekin harremana duen orori eta errespetua erabiltzen ditugun espazio eta baliabideei.

Horretaz gain, jangelari zuzenago lotutako helburuak ditugu: elikadura osasuntsu bat zer den ikastea eta elikadura osasuntsu bat edukitzea, garbitasun ohiturak barneratzea eta **haurraren autonomia garatzea**.

Ikastolaren ardura da, jangela zerbitzua eta ondorengo zaintzak irauten duen bitartean, zerbitzua erabiltzeko izena eman duten ikasleak ikastolaren zaintzapean daudela ziurtatzea eta ondorioz, hau ziurtatu ahal izateko, **arau** eta **gomendio** batzuk zehaztu ditugu, jangelako erabilpen egoki baten oinarriak kontuan hartuta: **ikasle guztien presentzia bermatzeko arauak, bizikidetza eta segurtasun arauak, elikadura osasuntsu bati lotutako gomendioak, eta garbitasun gomendioak**.

1.2. ARAUTEGI OROKORRA:

- Ikasle guztiek ikastolako **irteera ordutik 5 minutu**, gehienera, izango dituzte jangelara sartzeko.
- Jangelako **ordutegian haurrak ikastolan** egon beharko dute. Zerbaitengatik irteteko beharrik balego, hezitzaileei aurrez jakinaraziko zaie (kudeaketa atalean adierazten den moduan).
- Bazkal aurretik **eskuak garbitu** behar dituzte. Ondoren, dagokion mahaira hurbildu eta eseri aurretik, dagozkien lanak burutuko dituzte (mahaia jarri, ura eta ogia banatu...).

- Ikasleei ondorengo **kopurua** zerbitzatuko zaie:



ORIENTAZIO-KOPURUAK

JANARIA	ADIN-TALDEAK			
	HH3-HH5	LH1-LH 3	13-16 urte	Helduak
LEHENENGO PLATERRA				
Arroz zuria	1 L/6	1 L/5	1 L/4	1 L/4
Arrozerako tomatea	1 L/8	1 L/8	1 L/6	1 L/6
Zopa	1 L/4,5	1 L/4	1 L/3	1 L/3
Lekaleak	1 L/4,5	1 L/4	1 L/3	1 L/3
Pasta	1 L/5	1 L/4	1 L/3,5	1 L/3,5
Pastarako tomatea	1 L/8	1 L/8	1 L/6	1 L/6
Patatak(errioxar, marmitako..)	1 L/5	1 L/4	1 L/3	1 L/3
Barazkiak	1 L/4,5	1 L/4	1 L/3	1 L/3
Patatak eta barazkiak purean	1 L/3,5	1 L/3	1 L/3	1 L/3
BIGARREN PLATERRAK				
Albóndigak 25g	4 u	4 u	5u	6 u
Kroketak eta nuggetsak 20 gr	3 u	4u	5 u	5 u
Empanadilak 30 gr	2 u	3 u	4 u	4 u
Txahal xerra 80g -120 gr	1 u (80 gr)	1 u (80 gr)	1 u (120 gr)	1 u (120 gr)
Gisatuak (haragia 60-70 gr)	1 L/4,5	1 L/4,5	1 L/3	1 L/3
Hamburguesak 55g	1 u (HH5:1,5 u)	1,5 u (LH2:2 u)	2 u	2 u
Oilasko izterra 200-220g	0,5 u	1 u	1 u	1,5 u
Arraina 80 -150 gr	1 u (80 gr)	1 u (80 gr)	1 u (150 gr)	1 u (150 gr)
Txahal-biribilkia 40 gr	1 u	1,5 u	2 u	2 u
San Jacobak 90g	0,5 u	1 u	1,5 u	2 u
Tortila 800g	1/8	1/6	1/4	1/4
Xolomo eta bularki xerra 60g	1 u (HH5:1,5 u)	1,5 u (LH2:2 u)	2 u	2 u
Saltxitxak 40-50 gr	1,5 u	3 u	3 u	4 u
Kaneloiak 30 gr	1,5 u	2 u	3 u	3 u
POSTREAK				
Jogurta (120 gr) eta izozkia	1 u	1 u	1 u	1 u
Edateko jogurta	1 u	1 u	1 u	1 u
Fruta	1 u	1 u	1 u	1 u
HORNIDURAK ETA ENTSALADAK				
Letxuga eta tipula entsalada	20g	30g	50g	60g
"Chips", patata frijituak	20g	30g	30g	30g
Limoia	1 u/8	1 u/8	1 u/8	1 u/4
Mahonesa	1 L/50	1 L/50	1 L/50	1 L/50
Patata purea, piperra, txanpinoi	1 L/30	1 L/30	1 L/10	1 L/10
Saltsak	1 L/30	1 L/30	1 L/30	1 L/20

- Ikasle bakoitzak **ezpain zapi bat ekar dezake** izena jarrita, jangelan ez baita paperezko ezpain zapirik banatuko (jasangarritasun arrazoiengatik). Komuneko papera ezingo da ezpain zapi bezala erabili.
- Bazkal ostean **eskuak eta hortzak garbitzea gomendatzen da**. Nahi izanez gero, beraien izena jarrita duen nezeser edo poltsa batean hortzetako eskuila eta pasta ekarri dezakete. Jangelan, ikasle bakoitzak leku bat izango du bere nezeser edo poltsa uzteko.
- Sukaldean langileak bakarrik sartuko dira.
- Bazkaltzeko garaian **giroa lasaia** izan dadin gutxieneko isiltasuna izan beharko da.
- Bazkaria **itxurak zainduz** egingo dute, tresneria ongi erabiliz (koilara, sardexka eta labana ondo erabiltzen ikasiz), mahaia txukun mantenduz, bere tokian ongi eserita egonda, **jateko ohitura onak** bereganatuz.
- Gorputza osasuntsu mantentzeko ezinbestekoa da **denetik jatea**. Orotarik jaten ikasi behar da eta horretarako etxeko laguntza eskatzen da.
- Plater bakoitzetik, gutxienez **ezarritako minimoa jatea** gomendatzen da. Lehenengo platera jarri ondoren, denbora bat pasata, dena jaten ez badu ere, bigarrena zerbitzatuko da. Modu berean jokatu da bigarren platerarekin, eta postre garaian, jaten ez badu, denbora baten ondoren erretiratuko zaio. Haur bakoitza desberdina denez, hezitzaileak egoeraren arabera jokatu dute, malgutasunez, beti proposamenak eginez, animatuz eta gomendatuz, baina inoiz ez behartuz edo zigortuz.
- Jolasera zein etxeko lanak egitera **denak elkarrekin irtengo** dira. Honetarako izendatuak dauden espazioak errespetatuko dituzte, besterik erabili gabe. Espazio hauen berri jantokian idatziz izango dute jarrita. Espazio hauetan ere oinarritzko elkarbizitza arauak bete beharko dituzte.
- Ikasleek **ezin** dituzte ez sakeleko **telefonorik**, ez **smartwatch** ordularirik ezta **musika** entzuteko **tresna** edo antzekorik erabili ikastolan dauden bitartean. Erabiliz gero, **hezitzaileek jasoko** dute ikastolako arautegia jarraituz.

1.3. **KUDEAKETA:**

- Izena emanda dagoen ikasleak **egunen batean ezin badu etorri**, familiak jakinarazi behar du goizeko 9ak baino lehen. Bi modutan egin daiteke: mezu bat bidaliz idazkaritza@lazkaoko.ikastola.eus edo jangela@lazkaoko.ikastola.eus helbidera, edo ikastolako telefonora deituz (943 88 08 00).
- Aldez aurretik **abisatu gabeko** ez bertaratze kasuetan, jangelako arduradunak ikastola **jakinarazi** eta dagokion tutoreak familiari deituko dio.
- **Eskolaz kanpoko ekintzetara** joaten diren ikasleak elkarrekin irtengo dira. Horretarako, ikasleek legezko tutoreak **sinatutako baimen ohar bat** ekarri beharko dute kurtso hasieran, zein egun eta orduetan irten behar duen adieraziz.
- Arrazoiak arrazoi, ikasleren baten **egunen batean ikastolako eremutik atera** beharrik izango balu, gurasoen baimen eskaera idatzia ekarri beharko du. Baimen eskariak idazkaritza@lazkaoko.ikastola.eus emailen egingo dira. Hezitzaileak ziurtatu behar du gurasoen baimena dagoela.
- Ikasle batek **dieta berezia** behar badu, jangelako arduradunei jakinaraziko zaie jangela@lazkaoko.ikastola.eus helbidera eskaria eginez. Informazio hau bidali beharko da: ikaslearen **izen-abizenak**, behar duen **dieta berezia** eta sendagilearen **agiria**. Agiri hau aldaketak dauden bakoitzeko aurkeztu beharko da. Dieta berezien eskariak kurtso hasiera guztietan egin beharko dira.
- **Mediku tratamendu** bat behar izanez gero, gurasoak arduratu beharko dira.

1.4. **ETAPA BAKOITZEKO BEREZITASUNAK:**

1.4.1. **Haur Hezkuntza (HH):**

- Ezpain zapiak mantalaren poltsikoari josita egotea gomendatzen da. Astelehenetan ekarri eta ostiraletan garbitzeko etxera eramango dute.
- Ezingo dira 13:30ak baino lehenago haurrak jaso, kasu bereziren bat ez bada.
- Hortzak garbitzeko pasta ez ekarri, eskuila bakarrik.

1.4.2. **Lehen Hezkuntza (LH):**

- Lehen kurtsoetan, etxean labanarekin praktikatzea gomendatzen da.

1.4.3. Bigarren Hezkuntza (DBH):

- Erabilpen eta zerbitzuak: **ohiko jangela** eta **Esparru guneko zerbitzuak** (etxetik ekarritako jana edo entsaladak).
- Izen ematea, ohiko jangela edo Esparru gunerako egin behar da (etxeko jana, entsalada edo bietakoren bat) eta **urritik maiatzera** izango da. Bietako bat aukeratzen dutenek, hilabetero egin beharko dute (hilaren 20an jakingo dira hurrengo hilabeteko entsaladak).
- Kontuan izan beharrekoak izen ematea egiterakoan:
 - **Izen ematea, ohiko jangela edo Esparru gunerako** egin behar da.
 - Ohiko jangela eta entsaladetako **aldaketak**, egunero goizeko **9ak arte** kudeatuko dira, idazkaritza@sanbenito.ikastola.net edo jangela@sanbenito.ikastola.net emailera idatziz.
 - Esparru guneko erabilpenak **hilabeteko konpromezua** du.
 - Esparru guneko **aldaketak** (zerbitzua erabiltzen hasi edo utzi) aurreko hilabeteko azken eguna baino lehen adierazi behar dira idazkaritza@sanbenito.ikastola.net helbidera idatziz.
 - Esparru gunean bietako batean izen ematea egin dutenek, hilabetero galdetegi bat jasoko dute, entsaladaren aukerarekin eta eskaera betetzeko estekarekin.
- Zerbitzu honen inguruan **JAKIN** eta **BETE BEHARREKOAK**:
 - Zerbitzu honek **begiraleen zaintza** izango du.
 - **Jangelara** joaten diren ikasleak **haien kabuz** joango dira, irteera nagusiko atetik, eta plaza zeharkatuz. Gehienez 10 minutu izango dituzte jangelara iristeko.
 - Etxetik jana ekartzen duten ikasleek, janaz gain mahai tresnak ere ekarri beharko ditu. Edalontzia eta ura ikastolak jarriko ditu.
 - Bazkaldu ondoren, ikasleek, erabilitako mahaia eta mahai ingurua garbituko dituzte.
 - Ikastolatik irteteko baimena duten ikasleek, bazkaldu ondoren, ikastolako eremutik irten beharko dute nahitaez (jolastokiak barne) eta ezingo dute sartu, 13:05ean ate nagusia ireki bitartean. **Irteteko baimena izateak EZ du nahi dena egiteko eskubiderik emango** (hau da, gaur bai eta bihar ez).

- Bazkaldu ondoren, irteteko baimena ez duten ikasleak, jolastokietan edo bazkaltzeko erabili den espazioan egon ahal izango dute, beti ere begiraleen zaintzapean.
- Etxetik ekarritako jana edo entsalada Esparru gunean jan ahal izateko, **DERRIGORREZKOA** da **zerbitzuan izena emanda** egotea.
- **Izenik eman gabe**, jangela zerbitzuaren beharra izango balu, AUKERA BAKARRA, OHIKO **JANGELA** izango da.
- Etxetik ekarritako janaren zerbitzua, etorri ala ez etorri izen emandako egun guztiak kobratuko dira.
- Erabiltzaileen etortzearen jarraipena egin ahal izateko, ez etortzea jakinarazi behar da.

1.5. **ARAU-HAUSTEAK ETA ONDORIOAK:**

Jangelan ere ikastolako barne araudian jasota dagoen “zuzentzeko jokabideak” atala erabiliko dugu.

- **Ikastolako Barne Araudia** abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuan dago oinarrituta; dekretu honek EAEko unibertsitatez kanpoko ikastetxeaetako ikasleen eskubideak eta betebeharrak biltzen ditu.

Jangelako arautegian **arau-hauste jokabideak hiru eratakoak** dira:

1. Jokabide desegokiak.
2. Bizikidetzaren aurkakoak.
3. Bizikidetzari kalte larriak eragiten dizkietenak.

1) *JOKABIDE DESEGOKIAK (30. artikulua):*

Arautegiak jasotzen dituen **oinarrizko arauekin bat ez datozen jokabideak** dira (intentsitatea larria ez den bitartean). Horrela laburbildu daitezke jokabide desegokiak:

- Puntualtasun eza sarreran eta Irteteko orduak ez errespetatzea.
- Justifikatu gabeko ez bertaratzea.
- Jarrera desegokia janarekin, beste ikasleekin eta hezitzaileekin.
- Errespetu falta beste ikasleekin eta hezitzaileekin.
- Jangelako altzarien eta bertan dagoen materialaren erabilpen ez-zuzena.
- Jangela garaian sakeleko telefonoa edota beste gailu elektronikoak erabiltzea.

Zuzentzeko prozesua:

- Jangelan gertatzen diren arau-haustak **idatziz jasoko** ditu hezitzaileak eta jantokiko arduradunari (koordinatzaileari) emango dizkio.
- Arduradunak ikaslearen ikastolako Ikasketaburuari jakinaraziko dio. Honek edo tutoreak ere (larritasunaren arabera) gertatutakoaz ikaslearekin hitz egingo du eta familiarekin harremanetan jarriko da behar izanez gero.
- Ikasleari gertatutakoaz hausnarketa egitea eskatuko zaio. Honetaz gain, har daitezkeen neurri zuzentzaileen artean, hauek daude:
 - o Molestatu eta kasu egiten ez badu, bere ikaskideengandik banatzea.
 - o Beraiek zikindutakoa jasotzea.
 - o Garbitzea edo erratza pasatzea.
 - o Puskatutako materiala berria ekartzea.

2) BIZIKIDETZAREN AURKAKO JOKABIDEAK (31. artikulua):

Jokabide hauek jantokiaren **funtzionamendua larri eragozten** dute, ikasleei eta hezitzaileei begira. Ondokoak dira:

- Jokabide desegokiak hiru aldiz errepikatzea hiruhileko bakoitzeko.
- Jokabide desegokietan aipatu direnak era larrian gertatzen direnean.

Zuzentzeko prozedura:

- Jangelan gertatzen diren arau-haustak **idatziz jasoko** ditu hezitzaileak eta jantokiko arduradunari (koordinatzaileari) emango dizkio.
- Arduradunak ikaslearen ikastolako Ikasketaburuari jakinaraziko dio.
- Ikastolako ordezkariak familiari biltzeko deia egingo die. Har daitezkeen neurri zuzentzaileen artean, desegokietan aipatutakoez gain, jangelara joateko eskubidea behin behineko etetea ere badago (Dekretuaren 35. artikulua).

3) **BIZIKIDETZARI KALTE LARRIA EGITEN DIZKIOTENAK (32. artikulua):**

Jokabide hauek jangelaren **funzionamendua oso larri eragozten** dute, ikasleei eta hezitzaileei begira. Ondokoak dira:

- Bizikidetzaren aurkakoak hiru aldiz errepikatzea hiruhileko bakoitzeko.
- Jokabide desegokietan aipatu direnak era oso larrian gertatzen direnean.

Zuzentzeko prozedura:

- Jangelan gertatzen diren arau-haustea **idatziz jasoko** ditu hezitzaileak eta jantokiko arduradunari (kordinatzaileari) emango dizkio.
- Arduradunak ikaslearen ikastolako Ikasketaburuari jakinaraziko dio.
- Ikastolako ordezkariak familiari biltzeko deia egingo dio. Har daitezkeen neurri zuzentzaileen artean, aurreko bi kasuetan aipatutakoaz gain, jangelara joateko eskubidea ikasturtea bukatu arte etetea ere badago (Dekretuaren 36. artikulua).